

OSTEGUNA

2022/01/13
10. urtea, 1.534. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

23 urteko amezketarra hil da lan istripuan

Ikaztegiako Hertell kooperatiban gertatu da ezbeharra; gehiengo sindikalak deituta, elkarretaratzea egingo dute bihar lanategi aurrean // 3

Tuterako erailketa salatzera kalera atera dira herritarak

Villabona eta Zizurkil artean elkarretaratzea egin zuten atzo, eta gaur Anoetako plazan eta Tolosako Trianguloan egingo dute, 19:00etan // 5

**Kezkatuta dago
Villabonako
Udala
aldiriko tren
zerbitzuarekin** // 3

**Abesbatza
emanaldia eta
antzezlan
asteburuan,
Topic-en** // 2



IMANOL GARCIA LANDA

«Pilotaz gozatzen jarraituko dut, beste era batera bada ere»

JON ERASUN PILOTARIA

Pilotari zizulkildarrak «pena handiz» hartu du Baiko Pilota enpresak bere hitzarmena ez luzatzea; 2016an egin zuen debuta Beotibarren, eta larunbatean jokatu zuen azken partida Labriten; pilotari lotuta jarraitzea da bere nahia // 7

**Aurrematrikula
irekia
urtarrilaren
17tik 28ra**

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Kup Taldeak 'Maiteagoak' diskoa aurkeztuko du Tolosan

Euskal Choral Music disko-bildumako bigarren lana da, Xabier Sarasola musikagile beasaindarraren obrak biltzen dituen; larunbatean izango da saioa, 18:30ean, Topic-en



Kup Taldea abesbatzako kideak, artxiboko irudi batean. KUP TALDEA

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosan kulturak ez du etenik. Beste asteburu batez, askotariko saioez gozatzeko aukera izango dute kulturtzaleek, Tolosako Topic-en. Bihar, Mikel Azpiroz piano jotzaileak kontzertua eskainiko du, 20:30ean hasita. Larunbatean ere musika izango da protagonista Txotxongiloen Nazioarteko Museoko agertokian. Kup Taldeak, *Maiteagoak* diskoa aurkeztearekin batera, kontzertua eskainiko du, 18:30ean hasi-

ta. Kontzertua ikustera joateko sarrerak Topictolosa.com webgunean erosi daitezke.


Euskal Choral Music izeneko disko-bildumako bigarren lana da *Maiteagoak*. Udazkenean grabatu eta abenduan Beasainen aurkeztu zuten. «Duela hamar bat urte, Aita Donostiari buruzko disko bat grabatu genuen, eta aurten, proiektu hura berrartu, eta abesbatzarako euskal musikaren bilduma bat egitea erabaki dugu, beste ikuspegi batekin. Euskal musikagileen lan oso gutxi daude grabatuta, eta guztiak ezagutaraztea da helburua», azaldu du Xabier Ormazabal abesbatzako kide tolosarrak.

Larunbatean aurkeztuko duten diskoan, Xabier Sarasola musikagilearen figura nabarmendu nahi izan du abesbatzak. «Zoragarria da berak idatzitako musika, eta kasu honetan, ahots ezberdinentzat sortutako abestiak dira denak. Elizako testuekin idatzitako kantuez gain, euskal poetek idatzitako hainbat bertso musikatu entzuteko aukera izango da». Sarasolak, gainera, badu lotura Tolosako Abesbatza

Lehiaketarekin. «Berak sortutako obraren bat edo beste abestu izan dute nazioarteko taldeek, eta epaimahaiko lehendakari ere izan da», gaineratu du Ormazabalek.

2022an zehar, musikagile gehiagoren obrak biltzen dituzten diskoak kaleratuko dituzte, hala nola, Josu Elberdinenak eta Javier Bustorenak. «Suhar gizonezkoen abesbatzak grabatutako diskoa izango da bildumako hirugarrena, Aita Madina musikagilearen obrez osatutakoa», esan du.

Abesbatzak maite zituzten gazte batzuek 2003an sortu, eta gaur egun Euskal Herrian erreferentziatzeko koru izatera iritsi da Kup Taldea. Gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituen 40 laguneko multzoa da. Azken urteetan, ordea, helduen abesbatzen saioak estatikoak izaten direnaren iritzia zabaldu izan da. «Gure kontzertuan ez da eszenografiarik edo koreografiarik izango, baina egia da talde ugari lanean ari direla, kontzertuak publikoarentzat ikusgarriak izan daitezen».



Besteak beste, Mikel Laskurainek hartzen du parte 'Lur' antzezlanean. XAKE

Sortu zeneko agertokira itzuliko da 'Lur' antzezlanea

Xake Produksioak taldeak hirugarren aldiz eskainiko du genero identitatea oinarri duen obra Tolosan; Topic-en izango da, igande honetan, 18:30ean

J. Artutxa Dorronsoro

2018an, *Lur* antzezlanea estreinatu zuen Xake Produksioak taldeak, Topic-en, obra bera prestatu eta diseinatu zuen leku berean. Gerora, Euskal Herriko antzoki gehienetan ia 50 emanaldi eskaini dituzte, eta tartean, Azpeitiko XXXVI. Euskal Antzerki Topaketako Ikusleen Saria irabazi zuen, estreinatu zen urte bereko azaroan. Orain, hirugarren aldiz ekarriko dute Tolosara; igandean eskainiko dute, 18:30ean hasita, Topic-en. Antzezlanea ikustera joan nahi dutenek, Topictolosa.com webgunean eros ditzakete sarrerak.

Kepa Errastik idatzi eta Getari Etxegaraik zuzentzen du *Lur* antzezlanea. Obrako aktore ere bada Errasti, Erika Olaizolarekin, Mikel Laskurainekin eta Nerea Gorritirekin batera. Zazpi urte dituen Aneren eta bere aitonaren fantasiatzko bidaia kontatuko dute. Izar magiko baten bila ari dira, gero, izarrari desio bat eskatzea izango baita euren nahia.

Funtzioaren amaieran jakitera eramaten da desio hori zein den: alua duen mutikoa da Ane, eta horrela sentitzen denez, horrela bizi nahi du.

Oraindik ere, kontatzen den istorioak publikoa «txundituta» uzten duela aitortu du Xabier Ormazabal Xake Produksioak taldeko kide tolosarrak. Bere iritziz, gizarteak oraindik «ulergaitzat» duen gaia da genero identitatea. «Gaia naturaltasunez landu eta erakusten duen obra bat da, ikusleak hausnarketara bideratzen dituen. Hori dela eta, familian ikusteko oso aproposa da», esan du Ormazabalek.

Topic-en txotxongiloak ikustea izaten da ohikoena. Igandeko antzezlanean, baina, panpina batek beteko du izaki bizigabeei bizitza ematearen funtzioa. «Anek jasotzen duen opari bat da, Lur izeneko panpina. Tarte-ka, erabili egingo du, eta bizitza emango dio. Aktoreak protagonista dituen antzezlanea da berez, baina panpinak ere badu bere to-
kia».

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko terrakumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Lan bila

Garbiketa eta zaintza. Arratsaldeetarako lan bila nabil. Etxeak eta portalak garbitzeko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Interesatuak deitu eguerdian edo gauean: 696 409 773.

Langile bat hil da Ikaztegieta Hertell kooperatiban

Ikaztegieta dagoen Hertell kooperatiban gertatu da ezbeharra, eta 23 urteko amezketarra da hildakoa; bihar elkarretaratzera deitu dute enpresa aurrean

Erredakzioa Ikaztegieta

Amezketako 23 urteko langile bat hil da teilatutik erorita Ikaztegieta dagoen Hertell kooperatiban. Ezbeharra astelehenean izan zen, baina langilea hereneun hil zen. ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deituta, elkarretaratzea egingo dute bihar, *Lan istripu gehiagorik ez. Prekaritatea hiltzailea* lelopean, Hertell lantegian aurrean, 12:00etan.

LAB sindikatuak argitu duenez, Amezketako 23 urteko J.E.U. langileak istripu larria izan zuen astelehenean. Kolpe handia hartu zuen altuera batek erorita, eta izandako zauri larrien ondorioz hil zen, hereneun. Hertell kooperatibako langilea zen hildakoa. Aire ponpak, balbulak eta antzeko aparailuak

egiten dituzte, eta Mondragon taldeko kooperatiba bat da.

Hilabeteko epean altueratik erorita hiltzen den hirugarren langilea izan dela gogoratu du sindikatuak. Abenduaren 18an, 45 urtetako langile bat hil zen Zumaian eta urtarrilaren 10ean, 47 urtetako J.V.S.F. hil zen Gasteizko Olarizun auzoan. «Hereneun hildako langilearekin, gutxienez hiru dira aurten Euskal Herrian izan diren laneko heriotzak, urte hasieratik 12 egun baino pasatu ez direnean», salatu du LABek. «Egoera horren aurrean, norbaitek sinetsi al dezake kasualitatea izan dela? Administrazioei, lan istripuen eta lan gaitasunei aurre egiteko berehalako neurriak, kontrol handiagoa eta politika zehatzak eskatzen dizkiegu», gaineratu du.

Erakundeen erantzun irmoa beharrezkoa dela uste du sindikatuak, eta altuerako lanetarako plan espezifiko bat eskatu du. Plan hori «neurri egokiekin eta benetako prebentzio-politikekin» osatu behar dela uste du. «Datuak oso gogorrak dira, eta zifra bakoitzaren atzetik, izenak, familiak eta lagunak daude. Lanetik etxera itzultzen ez diren langileez ari gara».

ELAk, bere aldetik, lan merkatu «geroz eta prekarioagoaren eraginez», langileek pairatzen dituzten lan baldintza «kaskarrak» hazten ari direla adierazi du; «lan erritmo jasanezinak, jardunaldi amaigabeak, eta sektoreko hitzarmen nahiz prebentzio arautegiaren eguneroko betegabetzeak». Horregatik, langileen osasuna eta bizitza erdiguren jarriko dituzten eraba-



Ikaztegieta Hertell lantegian gertatu zen ezbeharra, astelehenean. ATARIA

kiak berehala hartzea «inoiz baino beharrezkoagoa» dela uste du, «urtero 50 langile baino gehiagoren heriotza ekidingo litzatekeelako».

LAN BALDINTZA KASKARRAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ere azken lan heriotza salatu du. Gazte elkartearen sareak azaldu duenez, «prekarietatea eta lan baldintza kaskarrak lan-istripuen, lan-gaitasunaren eta lan-osasunaren okertzearen ondorio zuzen bat dira». Hori dela eta, Gazteriaren Kontseiluak «gazteriaren lan baldintza prekarioak hobetu ordez, azken urteetan nabarmenki kaskartzen

ari direla» ohartarazi du. Horretaz gain, egoera honek gazteen osasun fisiko eta mentalean «eragin kaltegarriak» dituela eta lan istripuak zein prekarietatearekin harremana duten gaixotasunak pairatzeko aukerak areagotzen dituela gehitu du.

Ildo honetan, Gazteriaren Kontseiluak gazteen lan egoera «latza» islatzen duten estatistika «kezkarriak» gogoratu ditu; hain justu, esan du %15,6ko langabezia zutela 2021eko lehen hiruhilekoan, %62,6ko behin behinekotasuna 2020an eta batez besteko 18-34 urte arteko gazteen soldata 1.297 eurokoa zela 2020an.

Itxialdia ari dira egiten pentsiodunak

Erredakzioa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua lau urte beteko ditu larunbatean, hilaren 15ean, eta urteurrenaren harira, manifestazioa egingo dute Donostian, eta Hego Euskal Herriko beste hiru hiriburuetan eguerdian. Manifestazioa baina, ez da egingo duten mobilizazio bakarra izango. Aste hasieratik, esaterako, Donostian, Egiako Txoko Internazionalistan itxialdia ari dira egiten hainbat pentsiodun, eta tartean dira Tolosaldekoak ere.

«Gauzez Internazionalisten Txokoan gaude, eta egunez larunbaterako deialdiaren berri ematen ari gara herritarrei kalean, eskuorriak banatuz eta kotxeetan megafonia bidez», esan du Iñaki Elduaiek Tolosalde-

ko Pentsiodunen Mugimenduko kideak.

Elduaiek azaldu duenez, larunbatean «ahalik eta jende gehien» azaltzea da helburua, «mugimendua indartsu dagoela

erakusteko». Orain arte egindako bidea «oso positiboa» izan da pentsiodunen ustetan; «mugimendua hasi zenean hilabete batzuetarako izango zela uste genuen, baina, aldarrikapenak ja-

rraitzen dute, mugimendua egonkortuta dago, eta garbi ikusten duguna da jarraitu egin behar dugula».

Aldarrikapen batzuk lortu dituzte, baina, oinarritzko hainbat

lortu arte borrokan jarraituko dutela diote: «Pentsioen publikotasuna eta 1.080ko gutxieneko pentsioa izatea izango dira 2022an lehentasunezko aldarrikapenak».



Tolosaldeko pentsiodunek ere bat egin dute Donostiako itxialdiarekin. ATARIA

UZTURPE IKASTOLA IRAKASKUNTZA
KOOPERATIBA ELKARTEAREN
GAURKO OHIKO BATZAR NAGUSIA ATZERATU DA.

DATOZEN EGUNETAN LUZATUKO DA BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA,
DATA BERRIA ZEHAZTUZ.

UZTURPE IKASTOLAKO ERREKTORE KONTSEILUA

Isasti, Etxaburu eta Hozpel kaleetako bizilagunekin bilduko da udala

Gaur egingo dute bilera 18:00etan udaletxean, irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren inguruan aritzeko; herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute

Erredakzioa Anoeta

Isasti, Hozpel eta Etxaburu kaleetako herritarrekin bilduko da Anoetako Udala gaur, irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren inguruan hitz egiteko. Bilerak 18:00etan izango da, udaletxean.

Udaleko ordezkariak esan dutenez, bileraren helburuetako bat da bizilagunei xehetasunez azaltzea haien kaleetako irisgarritasun proiektuaren proposamena. Behin proposamenaren ezaugarriak eta xehetasunak azalduta, herritarrek aukera izango dute euren iritzia, zailtasunak zein ekarpenak aurkezteko.

Bilera horrekin Anoetako

Udalak parte hartze prozesua jarriko du martxan, Aztiker Soziologia Ikergunearekin batera gidatuko duena.

PARTE HARTZAILEAK

Bilkuran izango dira Pello Estanga alkatea, udal teknikariak eta Aztikerreko langileak. Irisgarritasuna hobetzeko lanen aurre proiektua Endara enpresak egingo du, eta haien ordezkari bat ere joango da bilerara.

Estangak nabarmendu du garrantzitsua dela oso herritarren iritzia jakitea edozein proiektu martxan jarri aurretik: «Auzotarrarekin bilduta euren iritzia jakin dezakegu eta hori kontuan hartuta diseinatu egingo dugu. Herritarrekin biltzea ohitura

bihurtu du Anoetako Udalak, eta hori oso aberasgarria da guztiontzat».

Kale horietako bizilagunekin bi bilerak egitea aurreikusten du alkateak: lehen saioan proiektua azalduko dute eta haren inguruan arituko dira, horrez gain, herritarrek aurrez prestatutako galdetegi bat ere jasoko dute, etxean erantzuteko; bigarren saioan, berriz, galdetegi hori abiapuntu hartuta jasoko dituzte ekarpenak.

2022ko aurrekontuaren inbertsioen atalean herriko hainbat auzo eta kale zaharberitzea indartuko zuela esan zuen udalak, helburu izanik irisgarritasuna bermatzea eta oinezkoien lehentasuna ematea.

GUTUNA

Segurtasun faltaren pasaportea

U rte berriarekin batera COVID-19a iritsi zen nire, etxeko bat positibo. Gero ni hasi nintzen sintomekin, proba egin eta positibo. Osakidetzan antigenoen testa egiteko zita jaso nuen. Emaiza jaso eta hau sorpresa, negatibo. Biharamunean erizainak deitu zidan, berriz ere antigeno proba egiteko. Ez nuen ezer ulertzen. Antigenoak, berriz? Protokoloa aldatu zutela eta PCR probak kasu berezietan bakarrik egiteko agindua zutela. Bigarrenez antigeno proba egin eta hara! positibo oraingoan. Umetako jolasaren antzera jasotzen nituen mezuak: maite nau, ez nau maite... PCR proba jarraituetan emaitza desberdinak jaso dituztenak ere badira.

Baina testen kontua alde batera utzita, positibo ofiziala iritsi zen eta hemen nire harridura: Osakidetzan egindako antigeno testetan positibo emanatik ez nuela COVID ziurtagiri salbatzailea jasoko. Agiria jasotzeko organismo publikoko PCR testetan positibo eman behar zela esan zidan erizainak, bere desadostasunerako.

Orduan hasi nintzen ulertzen. Hor non PCR probak «kasu berezietan» soilik egitearen arrazoia. Nahiz sintomak izan, antigenoetan positibo eta medikuak COVID gaixotzat hartu, ofizialki ez dut COVIDa pasa?

Bistan geratu da martxan dauden neurri onartezinak COVID-a saihestearrekin zerikusirik ez dutela. Sei hilabetez immunitatea dut, baina, ni naiz gizartearen zatarriskutsua dena, erradiaktivitatea duena eta bizitza sozial oro ukatuko zaiona. Txertatu direnak libre. Nire kasuan txertatua dagoen pisukideak kutsatu nau, bestela izan zitekeen arren. Olatu honetan agerian geratu da txertatuek kutsatzeko duten aukera eta hauen ziurtagiriaren pisa.

Helburua denok txertatzea da, baina ez gaixotasunari begira. Zer pentsa handia ematen du. Zergatik txertatu nahi gaituzte denok kosta ala kosta?

Zentzurik ez duten gauza asko daude mahai gainean. Txertatu asko zein osasun langileak ere hasi dira horretaz ohartzen.

Ez diezaiegun utzi birusa beraien intereserako erabiltzen, ez eta guri txotxongiloen moduan joko horren parte eginarazten!

Aran Rodas Iturriza Berrobi

Superheroien inguruko erakusketa Plazida Otañon

ZIZURKIL // Aiztondoko liburutegian martxan duten motxila ibiltaria ekimenean parte hartu duten gaztetxoek, misio bat izan dute azken hilabeteotan. Superheroia asmatu eta pertsonaia horretan oinarritutako eskulan bat egin behar izan dute. Jasotako pertsonaia guztiekin erakusketa egongo da ikusgai Plazida Otaño liburutegiko erakusleihan, gaurtik urtarrilaren 27ra bitartean.

Liburu aurkezpena egingo dute bihar Iriarte kultur etxean

ZIZURKIL // Garbiñe Larrea Iturralde naturopataren *Sendabelarrak dakitena* liburuaren aurkezpena egingo dute bihar, 19:00etan, Zizurkilgo Iriarte kultur etxean. Liburu honetan 45 sendabelarren propietateak ezaugarritzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza jaso du egileak. Ikasitakoa eta jasotakoa elkarbanatzeko saioa egingo dute bihar Herriguneko kultur etxean.

Heriotzaz hitz egiteko gunea zabalduko dute bihar Anoetan

ANOETA // Udalak antolatuta, *Death cafe*; heriotzaz hitz egiteko gunea egingo dute bihar Anoetako erabilera anitzeko gelan. Saioa 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute eta bertan Iñaki Arregi, Almaur elkarteak kideak emango ditu azalpenak. Parte hartu nahi duten herritarrek aurrez liburutegian eman beharko dute izena edo mezua idatzi kultura@anoeta.eus helbidera.



TIGRAYRA BICALIKO DUTE

Urteroko zozketa egin du Intxurre futbol taldeak eta 148. zenbakia atera da saridun. Altzoko Ostaturia izan da 1.000 euroak eskuratu dituen eta dirua Tigrayra bideratuko dute. ATARIA



Aurrematrikulazio
epea zabalik
Urtarrilaren 17tik 28ra

Aiztondoko
eskola
publikoa



Tuterako erailketa salatu dute Aiztondon

Gaur 19:00etan, Tolosan eta Anoetan egingo dituzte protestak; Euskal Herrian 2003tik erail duten 113. emakumea da Tuterakoa

Erredakzioa

Astlehenean 38 urteko emakume bat erail zuen bere bikotekideak Tuteran. Atzo, Akainek, Lurgatzek eta Aiztondoko Mugimendu Feministak «nazkatuta» daudela esan eta indarkeria matxista lehen mailako arazo politikotzat hartua izan dadin eskatu zuten Villabona eta Zizurkil arteko zubian egindako elkarretaratzean: «Egungo jarrera konplizeak alboratu eta bizi garen jendarte anto-

laketa sexistari aurre egiteko benetako neurriak behingoz har daitezela exijitzen dugu».

Autodefentsa feministarako deia luzatu eta euren bizitzaren aldeko apustu erradikala dela esan zuten bildutakoek. «Badakigu zaintza sareak ezinbestekoak direla indarkeria sexistari aurre egiteko, pandemiarekin modu berriak bilatu behar izan ditugu harremanak zaintzeko, baina inoiz ez dugu indarkeriaren aurka borroka egiteko indarra galdu»,

aldarrikatu zuten. «Elkarrekin borrokan jarraituko dugu denak aske izan arte».

2003tik 113 emakume erail dituzte Euskal Herrian. Aiztondoko talde feministen ustez, biolentzia matxistaren pandemiak mendeak daramatza mundu honetan eta feminismoa da dagoen antidoto bakarra horri aurre egiteko.

Gaur elkarretaratzeak egingo dituzte Tuterako erailketa salatzeke, 19:00etan, Tolosako Trianguloan eta Anoetako plazan.



Atzo Villabona eta Zizurkil arteko oinezkoen zubian izan zen elkarretaratzea. J.M.

Tren zerbitzuarekin kezkatuta agertu da udala

Amasa-Villabonako Udalak eskatu du aldirietako zerbitzua duten herrietako udalei eta erabiltzaileei informazio «argi eta gardena» helarazteko

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak aldiriko tren zerbitzuaren kalitatea berreskuratzeko berehalako neurriak hartzea eskatu dio Renferi eta garraio publiko honen ardura duen Espainiako gobernu ordezkariari. Tren ibilbidean egiten ari diren lanak direla eta, zerbitzuak murrizketak eta aldaketak egitea saihestezina bada, erabiltzaileei «behintzat garaiz eta modu argian» informatu behar zaiela uste du udal gobernuak, ahalik eta kalte txikiena eragiteko.

Renfeko aldirietako tren zerbitzuan gertatzen ari denari erantzuteko Gipuzkoan sortu den plataformako kideekin bildu ziren aurreko abenduaren 21ean Amasa-Villabonako udal ordezkariak. Hirugarren hariak kalte-tutako erabiltzaileen plataformako kideek egoeraren berri

eman zieten udal ordezkariari eta azken urteetan, batez ere, Donostia eta Irun arteko aldirietako tren zerbitzuetan gertatu diren etengabeak atzerapen eta suspentsioek eragindako kalteak azaldu zituzten. Hirugarren haria deitzen dioten proiektuaren ondorioz, azken lau urteetan lanak egiten ari dira Errenteria eta Irun artean, eta dirudienek, lan horiek jarraipena izango dute aurki Hernani eta Donostia arteko trenbide zatian.

Aurreikusten diren obrek alaketak eragingo dituzte aldirietako zerbitzuetan eta hori «oso kezagarria» da Amasa-Villabonako udal gobernuaren ustetan. «Badirudi egoera hobetu beharrean, okerrera joan daitekeela, zerbitzuaren kalitatea eta maiztasuna nabarmen kaltetuko dira», esan dute. «Udalek eta herriarrek ezertxo ere jakin gabe tren zerbitzuan murrizketa be-



Billabona-Zizurkil tren geltokian atzo ateratako irudia. J.M.

riak egiten hastea onartezina litzateke». Ondorioz, Renfe, Adif eta Espainiako gobernu ordezkariari eskaera zehatza egin dio Amasa-Villabonako Udalak: «Irun-Brinkola aldirietako zerbitzuak dituzten herrietako udalei eta erabiltzaileei informazio argi eta gardena helaraztea».

KUDEAKETARI KRITIKA

Amasa-Villabonako udal gobernuak «kezka eta ezinegona» plazaratu du, esan duenez, geroz eta ohikoagoak direlako atzerapen eta etenaldiak Irun-Brinkola aldirietako tren zerbitzu publikoan. «Herriko hainbat erabiltzaileekin harremanetan jarri on-

doren, egiaztatu dugu azken hilabeteotan trenen ordutegiak ez direla betetzen eta atzerapenak gero eta gehiago ematen direla. Atzerapen horiek, askotan hamar minutukoak izaten dira, baina kasu batzuetan hamabost eta hogeita minutukoak izatera iristen dira. Gainera, egiaztatu ahal izan dugunez, zenbaitetan zerbitzuak bertan behera gelditzen dira», aipatu dute.

Renfe egiten ari den kudeaketa «kaskarra» salatu du Amasa-Villabonako udal gobernuak: «Erabiltzaileei ez zaie informazioa ematen, sarritan pantailak eta teleadierazleek ez dute funtzionatzen, megafoniak ere ez

ditu argibideak ematen». Ordez-kari politikoek uste dute guzti horrek zerbitzuaren kalitatea «nabarmenki» jaisten duela eta kalte eta traba nabarmenak sortzen dizkiela garraio zerbitzu publiko honen eguneroko erabiltzaileei. «Penagarria da duela gutxi arte kalitatezko zerbitzu fidagarri eta puntuala zena, orain egoera honetan egotea, ziurgabetasuna nagusi delarik».

Honenbestez, egoera honen aurrean, Amasa-Villabonako Udalak zerbitzuaren kalitatea berreskuratzeko berehalako neurriak hartzea eskatu die garraio publiko honen ardura duten erakundeei.

‘Alkatea, bai esan?’ ekimena urtarrilaren 27an egingo dute, 17:00etan

Herriko gaztetxoenen ideia, iradokizun eta kezak jasotzen ditu alkateak saio horietan, elkarriaz bidez

Erredakzioa Ibarra

Gaur arratsalderako zegoen deituta *Alkatea, bai esan?* ekimenaren hurrengo saioa, baina udalak jakinarazi duenez atzeratu egin behar izan dute. Saioa urtarrilaren 27an izango da, Ibarako udaletxeko udalbatza aretoan, 17:00etan.

Duela bi urte jarri zuten martxan egitasmoa. Finean, gaztetxoenen iritzi eta ideiei leku emateko espazio bat sortzea du helburu, zuzen-zuzenean alkatearekin ideiak trukatzuz, elkarriaz bidez. Egitasmoa martxan jartzerako, ordea, pandemiak hartu zion aurre, eta lehen saioa telematikoki, bideo dei bidez egin behar izan zuten, bakoitzak bere etxean zela pantailaren aurrean. Datorrena, ordea, udaletxeko udalbatza aretoan izango da.

Igor Zapirain alkatearen esanetan, «herriko etorkizuna» dira gaztetxoak eta beraien ahotsa entzun nahi dute udalean. «Parte hartze bat sustatu nahi genuen, bai festa batzordean, eta baita areto nagusian ere, herriko gaztetxoenen kezak eta iradokizunak jasotzeko», esan zuen lehen saioan alkateak.

Gaztetxoek alkateari galderak egiteko aukera dute, herrian zer egin nahiko luketen edo zer gusatuko litzaien galdetzeko, adibidez.

Berastegiko artzaintza eta gazta kultura liburu batean jaso dute

Josu Ozaita antropologoak idatzi duen ‘Be!’ liburua igande honetan aurkeztuko dute udaletxean, 12:00etan; edonork izango du aukera ekitaldira joateko

Irati Saizar Artola Berastegi

Igande honetan, Berastegiko artzaintza eta gazta kulturaren inguruko liburua aurkeztuko dute udaletxeko erabilera anitzeko gelan, 12:00etan. *Be!* izeneko liburua idatzi du Josu Ozaita antropologoak, izenburuarekin Berastegiri, belarrari eta ardiaren marrazki erreferentzia eginez.

Liburua ontzeko, Berastegiko ukuiluetan barrena ibili da Ozaita, eta gazta nola egiten den ikustez gain, artzainak elkarriaz bidez ditut. «Zortzi artzain elkarriaz bidez ditut, baina horiekin herriko argazki orokor bat ateratzen saiatu naiz», azaldu du.

Ardien inguruan sortzen den «mundu txiki-handia» jaso du liburuan. Lehengo artzaintza nolakoa zen azaltzen du batetik liburuak, baina Ozaitak esan duenez, gaur egungo artzaintzari eman dio garrantzia: «Azken finean, 2.850 ardi daude gaur egun Berastegin 62 etxetan, eta nahiz eta batzuetan ardi gutxi izan etxeko, ardi horiek jetzi eta esne horrekin gazta egiten dute. Hor ikusten da artzain eta gazta kultura badagoela herri horretan».

Berastegiren identitatean artzaintzak zerikusia baduela baieztatu du Ozaitak egindako lanean: «Artzainei edo ardiei esker da Berastegi den bezalakoa; artzain kultura badagoela transmititzen du bertako paisaia berdeak. Berastegira iristean, belaze



Berastegiko artzaintza eta gazta kultura aztertu ditu Ozaitak ‘Be!’ liburuan. Irudian, liburuaren azala. ATARIA

berde zabalak ikusten ditugu, lorategi modukoak, eta hori artzain kultura dagoelako da».

Kultura hori nahiko berria dela kontatu du Ozaitak, eta horrek harritu du gehien lan hau egitean. «Duela 50 urte inguru Berastegira joango bagina, marioiagoea edo horiagoea zen, garai hartan soro eta baratza gehiago zegoelako». Esan du jendea fabrikara lanera joaten hasi zenean, terrenoak garbi mantentzeko, jendeak ardiak jarri zituela etxean. Eta gaur egun dagoen artzaintza kultura hori transmititzen joan dela urtez urte, belaualdiz belaualdi.

Liburua bera, igandetik aurrera izango dute eskura herritarrek zein handik kanpokoek. Josu Ozaitak idatzitako testua izango du, eta liburuari forma ematen eta argazkiak ateratzen Zura diseinuetako Julen Larruskain aritu da. Liburuan, gainera, informazioaz gain, gaztarekin egindako errezetentzako atala ere sortu dute.

HITZORDU GEHIAGO

Larunbatean, artzaintzari eta gaztari lotuta, beste hitzordu bat izango dute. Aritz Ganboa artzainaren eskutik, *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izango da,

17:30ean, erabilera anitzeko gelan.

Eta datorren asterako ere badiutuzte beste hainbat kontu Berastegin. Astelehenean San Anton eguna ospatuko dute, eta urtero moduan, San Anton ermitan meza egingo dute 10:00etan, eta animaliak bedeinkatuko dituzte jarraian. Horren ostean, hamaitakak egingo dute.

San Sebastian eguna ere datorren astean da, eta egun hori ospatzeko tartea ere hartuko dute urtarrilaren 20an. Meza egingo dute izen bereko ermitan 10:00etan, eta jarraian hamaiketako izango dute.

Hilberriak eta urteurrenak



Nekane Tolosa Ulazia

Uzturpe Ikastolako langile ohia

*Amezketako sustraiaetik
Ibarako Uzturpe Ikastolako hegalean magalean
babestu zenituen ikasleak.
Zure ikasle eta lankideon oroimenean
hegan egingo du zuk ereindako uztak.*

Uzturpe ikastolako langile,
ikasle eta familiak.



IBARRA, 2022ko urtarrilaren 13an.



Nekane Tolosa Ulazia

*Heriotzak bat nora darama
Urruti edo gertura
Eramaterik ez dagoelako
Beti egon dan lekura
Maitasuna da bizi garenon
Eta izanen lotura
Agur Nekane zure izana
Lagunetan gelditu da*

OBENAK eta PERIKUEKO LAGUNAK

HERNIALDE, 2022ko urtarrilaren 13an.



Francisca Larrea Asurmendi

*Mundura ezta iñor etortzen
Betiko izaten danik
Agur amona aldegin dezu
Zenuen dena emanik
Hau sinestea etzan erreza
Besteren batek esanik
Zure begien bizitasuna
Noizbait emendaiko zanik*

Zure seme-alabak, bilobak eta birlobak

ZEGAMAN, 2022ko urtarrilaren 13an.

Asier Imaz/I. Garcia Landa
Zizurkil

Baiko Pilota enpresak ez dio luzatu hitzarmena Jon Erasuni (Zizurkil, 1996). Larunbatean jokatu zuen bere azken partida enpresarekin, Labrit pilotalekuan. 2016an egin zuten debuta Beoti-barren, eta urte hauetan 200 partida inguru jokatu ditu profesional bezala.

Momentu zailak bizitzen ari zara, ziur aski.

Bai, batez ere txikitatik nire pasioa izan dena eta beti gustatu izan zaidana beste era batera egiten jarraituko dudalako. Penarekin, baina biziak aurrera jarraitzen du eta pilotaz disfrutatzen jarraituko dut beste modu batera.

Baikok abenduaren amaiera aldera jakinarazi zuen ez zenuela beraiekin jarraituko. Zuk erabakia noiztik zenezakien?

Enpresak publikatu baino egun bat lehenago jakinarazi zidaten. Azken momentuan izan zen; nire ustez berandu hartu zuten erabakia.

Zer hitzarmen mota zenezakien?

Hiru urtetarako hitzarmena nuen eta abisatu zidatenean hamabost bat egun geratzen ziren hitzarmena bukatzeko.

Aurretik galdetu zenien enpresakoei luzatzeko asmoa ote zuten?

Ez, ni enpresaren zain nengoen ea zer esango zidan, ez nekien baiezkoa edo ezezkoa izango zen, eta beraiek abisatu zidatenean orduan jakin nuen.

Zure aldetik jarraitzeko asmoa zenuen, ezta?

Bai, 25 urte izanik eta pilotarako gogoia izanik, jarraitzeko gogoia nuen, baina beraiek erabaki dute ezezkoa eta nik erabaki horren kontra ez daukat zer eginik.

Enpresatik azalpenik eman zizuten?

Esan zuten egoera txarra dela,

«Oso tristea iruditzen zait 25 urterekin etxera joan behar izatea»

JON ERASUN
PILOTARIA

Pena handiz hartu du pilotari zizurkildarrak enpresak bere hitzarmena ez luzatzea. Betidanik gustuko izan du pilotan jokatzeko eta horretan jarraituko duela esan du.



I. GARCIA LANDA

Oinatz kasuan urte asko jokatutakoa da, pilotari handia izandakoa; nire kasuan 25 urterekin karrera guztia aurretik nuela ez didate luzatu hitzarmena, eta uste dut pilotako urterik onenak kentzen zaizkidala. Oso tristea iruditzen zait 25 urterekin etxera joan behar izatea, baina egungo enpresaren politika horrela da, eta espero dut hemendik aurrera ni izatea azkena 25 urterekin etxera joaten dena. Ez dut uste horrela izango denik, baina iruditzen zait pilotarentzako onuragarria izango zela 25 urteko pilotari bat etxera ez bidaltzea.

Zer balantze egiten duzu profesionaletan egindako ibilbideaz?

Denetarik izan dut. Hasieran emaitza onak lortu nituen, eta aurreneko txapelketan txapel-dun geratu nintzen. Momentu onak izan ditut eta txarrak ere bai. Lehen mailan jokatzeko gogo horrekin geratzen naiz. **Palmaresari begiratu, binakako txapela jantzi zenuen eta buruz buruzko final batera ere iritsi zinen, biak promozio mailan.**

Horiez gain, binakako beste final bat ere jokatu nuen. Binakakoa irabazi nuenean, hasiberria nintzen eta ilusio handia nuen. Buruz buruko finala jokatzeko ere garrantzitsua izan zen, bigarren mailan dagoen gauzarik handi eta politena da. Gainera, azkenaldian atzelarientzako oso zaila da, jokatzeko modua aurrelari-entzako modukoa delako, dena airera jokatuz. Atzelariek urte guztian atzean jokatu eta denbora gutxian egokitu egin behar

dute atzean jokatzeko modu horretara, eta ez da erraza.

Eta momentu jakin bat aukuratuko zenuke?

Ez dakit... Aldagelan giro ona izan dugu, gustura ibili gara, beti lagun artean, eta orain ez zait anekdota bat burura etortzen. Aldagelan egin ditudan lagunekin geratzen naiz batez ere.

Azken partidari, zure enpresako pilotariez gain, Aspe enpresakoak ere izan ziren, tartean Jokin Altuna.

Eskertzekoa da bai Altunak eta bai nire enpresako pilotariek emandako oroigarriak. Oso eskertuta nago, eta beti gogoan izango dut nire taldekideek eta pilotariek egindako agurra.

Azken partida hori Inaki Artola aurrelari zenuela jokatu zenuen. Polita izango zen.

Bai, Artolarekin gainera betidanik oso harreman ona izan dut, oso ingurukoak gara eta betidanik ezagutzen dugu elkar. Enpresak esan zidanean azkeneko partida Artolarekin jokatu nuela ilusioa egin zidan.

Zure ingurukoek nola jaso dute enpresak hitzarmena ez luzatzea?

Pena handiz. Ikusten genuen posible zela ere ez berritzea, baina 25 urte edukita eta ikusita pilotan jokatzeko maila badudala, pena handiarekin hartu dute. Aurrera jarraitu beharra dago, bizitzak horrelako kolpeak ematen ditu eta berreskuratuko gara horretatik ere.

Horrekin du esan nahi pilota mundua utziko duzula.

Ez, afizionatuetan jokatzeko ere aukera handia baitago. Nik pilotan jokatzeko gogoia dut eta jarraituko dut jokatzeko osasunak laguntzen didan bitartean. Beti gustatu izan zaidan gauza bat da eta ez diot utziko pilotan jokatzeari. Orain aste batzuk lasai hartuko ditut, eta gero pixkana berriz martxan jartzeko asmoa dut. Ez dakit zer klubekin-edo ariko naitzen, baina gogoz nago berriro ere pilotan gerra emateko.

Aulkitik

Andrea Larrañaga

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

2022ari hasiera ona

Ezohiko Gabon batzuen ondoren helburu garbi batekin iritsi ginen partidara: hiru puntuak etxean geratzeko.

Arratsalde beroketa sendo eta gogotsu batekin hasi genuen. Beroketa horren emaitza lehe-

nengo zatiaren 3. minutuan ikusi zen; ezker hegalean Lorek Ainhoaren pasea jaso, areara iritsi eta atezaina gainditzea lortu zuen. Gol goiztiar horrek lasaitasuna eta konfiantza eman zion taldeari.

Bigarren zatian euriak zelaia

putzuz bete eta jokoa zaildu zuen. San Ignaziok geldikako jokatdietan lehia berdintzeko aukerak izan zituen baina taldeak lanean jarraitu zuen eta 79. minutuan 2-0koa lortu genuen. Oraingoan gola eskuin hegaletik iritsi zen; Alaitzek atzelarien biz-

karrera pase luzea jarri eta Terek atezaina gainditzea lortu zuen. Orain bai, partida gurea zen.

Datorren asteburuan Santanderrera bidaiatuko dugu CD Monteren aurka jolastera eta 3 puntuak etxera ekartzeko asmoz. Gogor ekipo!

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL NESKAK	Larunbata 15, 10:00etan
BILLABONA F.K.E. - GOIERRI GORRI F.K.	
1. KADETE MAILA	Larunbata 15, 12:00etan
BILLABONA F.K.E. - DANENA K.E.	
OHOREZKO KADETEA	Larunbata 15, 16:00etan
BILLABONA F.K.E. - REAL SOCIEDAD	
1. JUBENIL MAILA	Larunbata 15, 18:00etan
BILLABONA F.K.E. - URNIETA K.E.	
PREFERENTE MAILA	Igandea 16, 16:30etan
BILLABONA F.K.E. - ORIOKO F.T.	
Billabona Fke	



OSTEGUNA, 2022KO URTARRILAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 13

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Agatha Christiren *Eta ez zen alerik ere geratu* liburua aztertuko du irakurle taldeak, liburutegian, 18:00etan.

Amasa-Villabona. Jose Luis Sukia Ikastolen Elkarteko zuzendariaren hitzaldia, hezkuntza lege berriaz, Subijana etxean, 18:30ean.

Anoeta. Tuterako erailketa matxista salatzeke elkarretaratzea, plazan, 19:00etan.

Irura. Herriko hondakinen eboluzio-ari buruzko informazioa eta neurri berrien berri emateko batzarra, eskolan, 18:00etan.

Tolosalea. Osakidetza «gain-karga eta utzikeria salatzeke» elkarretaratzeak osasun zentroetan, Satse, ELA, LAB, CCOO eta UGTk deituta, 13:00etan.

Tolosa. Tuteran gizon batek emakume bat erail duela salatzeke elkarretaratzea, Trianguloan, 19:00etan.

Zizurkil. Baratzeari osatuz, naturaren erritmoetara ongizatea osatuz ikastaroa, Fraisoron, 15:30ean.

Zinema

Tolosa. *Espiritu sagrado* filma, Leidorren, 20:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldia, eskualdeko albisteak, kolaboratzaileak...

15:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Musikasi. Musika klasiko.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Iñaki Letamendia)

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. J.M. Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. L. Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro hotzarekin jarraituko dugu. Goiza oso hotza izango da, eta txoko gehienetan izotza agertuko da. Behe-lainoa jaso ostean, zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua nagusituko dira. Temperatura zerbitzua igoko da, 10-11 graduan joz goia.



Bihar. Giro eguzkitsua. Goiz hotz baten ostean eta behe-lainoa jaso eta gero, zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Haizeak aldakor eta ahul joko du eta tenperaturan ez da aldaketa handirik izango, non 10-12 graduan joko duen goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Txakurrentzako gune berriak, erabilgarri

Arkauten eta San Estebanen egokitu ditu Tolosako Udalak bi guneak; bertan txakurrak solte ibili ahalko dira



Arkauteko parkean egokitu dute gune bat, eta bestea San Esteban auzoan. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Pertsonen eta txakurren arteko elkarbizitza bermatu eta hobetzeko eta animalien jabetza arduratsua sustatzeko urratsak emateko, bi berdegune egokitu ditu Tolosako Udalak txakurren jabeak bertara joan daitezen euren txakurrekin.

Kartel batzuk jartzea falta den arren, dagoeneko erabilgarri daude Arkauten eta San Estebanen jarri diren txakurrentzako parkeak. Txakurrei zuzendutako eremuak izango dira, eta bi parke horien funtzionamenduaren bilakaera aztertu eta herriko puntu gehiagotan jartzeko aukera baloratuko du udalak.

Udaletik esan dutenez, helburua da animalientzat eta pertsonentzat diren espazioak bereiztea, «gatazkak ekiditeko eta elkarbizitza sustatzeko». Hala, Arkauteko eta San Estebango parkeetan txakurrak solte ibiliko ahalko dira itxitako eremuan; Arkauteko parkearen kasuan, erdiguneko eremu berdea pertsonentzat izango da, «udan etzateko edota belarretan jolasteko aukera izan dezaten tolosarrek».

'TXAKUR EREDUGARRIA'

Pertsonen eta txakurren arteko elkarbizitza bermatu eta hobetzeko eta animalien jabetza arduratsua sustatzeko lan-lerro desberdinak lantzen ari da Tolo-

sako Udala; izan ere, «geroz eta txakur gehiago dago herrian eta, hainbatetan, gatazkak edo gaizki-ulertuak sortzen dira txakurren jabeen eta gainerako herri-tarren artean».

Udalerrian jarri diren bi txakur parkeez gain, hainbat tolosarrek egindako eskaerari erantzunez, *Txakur Eredugarria* programa abiatu zen urrian. Programaren barruan heziketa saioak eta ibilaldi praktikoa egiten dituzte Tolosako txakurren jabeek euren txakurrak hezteko baliabideak emateko eta paseo ohitura egokiak indartzeko. Gainera, ekimenak izandako harrera ona ikusita, 2022an jarraipena emateko aukerak aztertzen ari da Udala.

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Urtarrilak 22, larunbata,
18:00etan,
Tolosako Leidor antzokian

Gai jartzailea:
Amaia Agirre



Antolatzaileak:

Maritxu

Galtzaundi

Tolosa



Babesleak:

Tolosa